

ERAKUNDEEN ARTEKO HITZARMENAREN
JARRAIPENARI ETA EBALUAZIOARI BURUZKO
TXOSTENA (2006)

Erakundeen Arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko erakundeen arteko hitzarmeneko bosgarren estipulazioko e) atalean ekitaldi bakoitzaren amaieran erakunde sinatzaileek Hitzarmeneko edukiak betetzeari buruzko jarraipen eta ebaluazio txostena egin beharko dutela zehazten da. Aipaturiko Hitzarmena 2001eko urriaren 18an onartu zen.

Honako agiri honek, Emakumearen Euskal Erakundeak (Emakunde) Hitzarmeneko erakundeek emandako informazioan oinarrituta prestatu duena, erakunde sinatzaile bakoitzak¹ jarraipenerako eta ebaluaziorako txosten partzialetan jasotako informazioa testu bakarrean jaso nahi du, modu ordenatuan, Hitzarmenean zehaztutako konpromisoak eta jarraibideak zein mailatan bete diren ikusi ahal izateko.

Hitzarmenean bertan ezarritako irizpideari jarraiki, dokumentua bi zatitan dago banatuta. Lehenengoan, erakunde sinatzaileek Hitzarmeneko Jarduera Protokoloan ageri diren neurriak eta jarraibideak aplikatuko direla bermatzearren 2006an egindako jarduerak adierazten dira. Aurreikuspenak zer mailatan bete diren jakiteko, komenigarria da Jarraipen Batzordeak 2006ko ekainaren 2an onartutako Erakundeen arteko Hitzarmena aplikatzeko neurriei buruzko agiria (2006) kontuan izatea, bertan aipatzen direlako erakunde sinatzaile bakoitzak abian jarri beharreko neurriak.

Bestalde, txostenak bigarren zati bat du, non erakundeek euren jarduera-eremuetan Jarduera Protokoloa betetzearen mailarekin lotuta txosten partzialetan egin duten balorazioa literalki jasotzen den.

Gasteiz, 2007ko maiatzaren 23a

¹ Ez da Fiskaltzaren, Legekariaren Euskal Kontseiluaren eta Euskal Kontseilu Medikoaren inguruko informaziorik ageri, ez dutelako Jarraipen Batzordearen Idazkaritzara bidali.

A) EGINDAKO EKINTZAK

EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZA

Lehendakariak emakumeen aurkako indarkeriaren eta Erakundeen arteko Hitzarmenaren gaineko aipamenak eta erreferentzia esplizituak egin ditu bere hitzaldi publikoetan, gaia dela-eta egoki zenean.

Hitzarmenarekin lotutako beste erakunde batzuek trebatzeko eta sensibilizatzeko antolatutako jardueretan (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, etab.) parte hartu du.

Azaroaren 25eko sensibilizazio-kanpaina diseinatzen, finantzatzen eta zabaltzen lagundu du, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko konpromiso politiko, sozial eta pertsonal handiagoa lortzeko.

Etxeko tratu txarreatatik eta sexu-erasoengatik heriotzak izan direnean, udalak deitutako gaitzespen ekintzetan Lehendakariatzako ordezkariaren batek parte hartu du, erantzun-protokoloa aplikatuz, bai eta beste gaitzespen jarduera batzuetan ere, Euskadiko gainerako erakundeekin lankidetzan.

EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

Euskadiko poliziek etxeko indarkeriaren eta sexu-askatasunaren aurkako delituen inguruan duten informazio estatistikoa batzeko eta ustiatzeko koordinazioari, homogeneizazioari eta sistematizazioari buruzko arau bat sortzeko lanean jarraitu du.

Laneko bilerak izan ditu poliziaren estatistikarekin zerikusia duten eragileekin, etxeko indarkeriaren eta sexu-askatasunaren biktimen inguruan Ertzaintzak duen informazio estatistikoan gertaeren egileari buruzko aldagai estatistikoak sartzeko.

Emakunderi Ertzaintzak ezagutzen dituen etxeko indarkeriarekin eta sexu-askatasunaren aurkako delituekin lotutako arau-hauste penalen biktimen estatistikak bidaltzen jarraitu du, eta aurreko ekitaldiarekin alderatzeko datuak ere eman ditu.

112 telefonoan jasotako deien artean etxeko tratu txarreatikoak zenbatzeko neurri egokiak hartu ditu.

Azaroaren 25eko erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpainan parte hartu du.

Bikotean indarkeria larria jasateko arrisku-egoera baloratzeko galdera-sorta prestatzeko EHUrekin batera hasitako lana amaitu du.

Etxeko eta genero-indarkeriaren tratamenduan Kalitatea Kudeatzeko Sistema ezarri du.

Autobabesteko neurriei buruzko informazioa biltzen duten bideo eta liburuxka bana argitaratu ditu etxeko eta genero-indarkeriaren biktimentzat, eta Ertzainetxe guztietan erabiltzen dira.

Beharra daukaten etxeko eta genero-indarkeriaren biktimentzat etengabeko zainketa-programa ematen jarraitu du.

Herrizaingo Sailak etxeko eta genero-indarkeriaren arloan sinatutako erakundeen arteko protokoloak aplikatzen eta aldiro-aldiro berrikusten jarraitu du, batez ere Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Neurrien Legearen eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren eraginkortasuna koordinatzeko protokoloa. Etxeko eta genero-indarkeria tratatzeko Kalitatea Kudeatzeko Sistemari jasota dauden instrukzio operatiboak ere aplikatzen dira.

Ertzaintzaren Zuzendaritzako Herritarren Segurtasun dibisioko langileak etxeko tratu txarren eta genero-indarkeriaren tratamenduarekin lotutako alderdietan trebatzen jarraitu du: soziologia, psikologia, zuzenbidea, polizia-dokumentuak, instrukzio operatiboak eta etxeko tratu txarren zein genero indarkeriaren espedienteari buruzko tresna informatiko berria.

Etxeko eta genero-indarkeriaren kasuistikari buruzko Fiskaltza Bereziarekin bilerak egin ditu.

Genero-indarkeriaren ondorioz sortutako arazoan, Euskadin gaur egun duen egoeraren eta bere bilakaeraren berri eman die herritarrei, Herrizaingo Sailaren Prentsa Zerbitzuak zabalduetako informazio estatistikoaren bidez.

Ertzaintza Gaur argitalpenean genero-indarkeriari buruz azaldutako artikuluen bidez, indarkeria horrek eragiten dituen arazoak hobeto ezagutzen lagundu die Ertzaintzako kideei.

Erakundeek etxeko tratatu txarrek eragindako heriotzei eman beharreko erantzunei buruzko protokoloa aplikatzen parte hartu du.

Eguneratze eta hobetzeko ikastaroei dagokionez, ertzainek eta udaltzainek etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen kasuetan ekiteko trebakuntza planifikatzen jarraitu du, lehenengo kasuan Segurtasun Sailburuordetzak eta bigarrenengan alkatetzek eskatuta.

Eskaletan eta espezializazio-kategorietan sartzeko ikastaroetan etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eman beharreko erantzunarekin lotutako alderdiak sartzen jarraitu du.

EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Diru-laguntzak esleitzeko orduan, lehentasuna eman die genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak laguntzeko gizarte-proiektuei.

Diru-laguntzak esleitzeko orduan, lehentasuna eman die gizarte-zerbitzuetako profesionalak alor honetan trebatzeko ikastaroei.

Zenbait jarduera egin ditu genero-indarkeriari eta interkulturalitateari buruzko trebakuntza-modulua diseinatzeko, 2007an *ad hoc* trebakuntza emateko asmoz.

Agintzarik Bilbon antolatutako "Emakumeen kontrako indarkeria: politiketatik esku hartzeko tresna aurreratuetara" jardunaldia finantzatu du.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko azaroaren 26ko Aginduko 3. artikuluan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko ekainaren 14ko Aginduko 5. artikuluan, 11.3 artikuluan eta abenduaren 30eko babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari buruzko 325/2002 Dekretuaren bigarren xedapen osagarrian erabilitako irizpideak mantendu egin ditu, etxeko tratatu txarren biktimak hartzeko baliabide gisa Foru Aldundiek eta udalek etxebizitzak erosteko aukera izateari buruzkoak.

Mantendu egin du Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko azaroaren 26ko Aginduko (genero-indarkeriaren biktimentzat etxebizitzak gordetzeari buruzkoa) bigarren artikuluan erabilitako irizpidea.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko agindua argitaratu du, etxebizitza-gaietan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen aldeko ekintza positiboko neuriei buruzkoa.

Etxeko tratu txarren biktimei beharrezko etxebizitza-baliabideak bermatzeko, erakundeen arteko lankidetzak formulak artikulatu ditu.

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako abegi-baliabideak arautzeko dekretuaren zirriborroa aurkeztu zuen Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Bilkuraren aurrean, eta honek aldeko txostena eman zion.

Azaroaren 25eko ospakizuna dela-eta erakundeen artean antolatu diren sentsibilizazio-kanpainan parte hartu du.

Etxeko tratu txarrek eta sexu-erasoek eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunei buruzko protokoloa aplikatzen parte hartu du.

Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako gida finantzatu eta zabaldu du.

Gizarte zerbitzuetan datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesuan parte hartu du.

Eudelek argitaratutako *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibide-gida* aurkezteko antolatutako prestakuntza saioan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren biktimentzako etengabeko telefono bidezko zerbitzuaren berri emateko bi kanpaina jarri ditu abian.

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Lurralde Historiko bakoitzean Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren eraginkortasunerako Jarduera Protokoloaren jarraipena egin du. Protokoloa 2005ean sinatu zuten Gobernu-aretoko ordezkari batek, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu-idazkariak, probintzia-azitegiek, epaile dekanoei, Fiskaltzak, Emakundek, Herrizaingo Sailak, udaltzaingoei, elkargo profesionalei, gizarte-zerbitzuei, berdintasunerako erakundeek eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak.

Adingabeen Legeari buruzko trebakuntza ikastaro bat antolatu du epaileentzat, idazkaritza judizialentzat eta fiskalentzat, eta bertan sexu-erasoen eta jazarpenaren gaia aztertu dute.

Lurralde Historiko bakoitzean Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Legeari buruzko ikastaro bana antolatu du abokatuentzat.

Organo judizialetako aplikazio informatikoa hobetu du, estatistikak fenomeno honen errealitateari hobeto egokitzei, betiere uneoro konfidentzialtasuna eta egiatzotasuna bermatzen.

Genero eta etxeko indarkeriari zein sexu-erasoei buruzko justizia.net web orriko edukiak eguneratu eta hobetu egin ditu.

Emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegi berrien sorrera bultzatu du.

Biktimei arreta hobe emateko, gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko neurriak indartu ditu.

Etxeko tratatu txarrek eta sexu-erasoei eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunei buruzko protokoloa aplikatzen parte hartu du.

Etxeko indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen biktimei abokatuen berehalako jasotzeko telefono zenbakia jarri du abian, bakarrik Autonomia Erkidego osorako: 902 103 908.

Legekariei Euskal Kontseiluarekin beste hitzarmen bat sinatzea bultzatu du, etxeko tratatu txarren eta genero-indarkeriaren zein sexu-erasoen biktimei eman behar zaien

laguntzaren ingurukoa, aurreko hitzarmenaren hutsuneak zuzentzeko, jarduerak argitzeko, zerbitzuaren doakotasuna zabaltzeko, abokatuen ordainsariak hobetzeko eta berehalako aholkularitza hobe bermatzeko abokatu kopuru egokia izateko.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak gainerako eragileekin koordinatzeko sistema hobetu du - esaterako, Babesteko Aginduak Koordinatzeko Zentro moduan-, Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Neurrien Legearen eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren eraginkortasunerako Koordinazio Protokoloen markoan.

Hutsuneak aurkitzeko eta hobetzeko, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuek funtzionatzeko metodoak ebaluatzen jarraitu du.

Barakaldoko Justizia Jauregian Biktimei Laguntzeko Bulegoa jarri du, Barakaldoko Barruti Judizialeko biktimen eta epaitegien eskura. Biktimei Laguntzeko Bizkaiko Zerbitzuak kudeatzen du.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzuari buruzko material dibulгатibo eguneratua banatu du.

Guardiako zerbitzua jarri du abian BLZtan: Babesteko Aginduak Koordinatzeko Zentroa, EAEn izaten ari diren prozesu judizialean eragina duten EAEko espetxeetako presoak asteburuetan ateratzen direnerako.

Babesteko agindua eskatzeko formularioaren diseinuan eta aldaketan parte hartu du.

Zifretan informazio-buletinaren 1. alea prestatu, argitaratu eta banatu du, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa (Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Neurriei buruzkoa) funtzionatzen hasi denetik urtebetean jazotakoari buruzko hausnarketak jasotzeko.

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

2002az geroztik, tratu txarren aurrean aplikatu beharreko Osasun Protokoloaren funtzionamendua eta hedapena ebaluatzen jarraitu du.

Lehen mailako arretan eta Osakidetzako/EOZ ospitaleetan zein pribatuetan tratu txarren aurkako osasun-protokoloa sistematikoki eta behar bezala betetzea berretsi du (lehen mailako arretako zein Osakidetzako/EOZ akutuen ospitaleetako larrialdi-zerbitzuen barne dauden jarduerak).

Osasun zentroetarako eta ospitaleetarako materialak berrargitaratu ditu.

Indarkeriari eta lehen mailako arretari buruzko material dokumentala ikuskatu du, eta Euskadirako egokitu.

Erakundeen Arteko Talde Teknikoak adostutako eta Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak onartutako materiala osasun-langileen eta, hala zegokionean, gaixoen artean banatu du.

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean, erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpainan parte hartu du.

Erakunde guztientzako komunak diren neurrietan parte hartu du.

Ospitaleetako larrialdietako erizaindegietan garaiz antzemateko protokoloa sortu du. Behin baliozkotzen dutenean, ospitaleetako gutxienekoen protokoloa egiteko oinarria izan daiteke.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko trebakuntza-ikastaroak antolatu ditu medikuntzako profesionalentzat, Osasun Protokoloaren berri emateko.

Osakidetzako akutuen ospitaleetan indarkeriari buruzko informazioa jasotzeko sistema egokitzeko prozesua jarri du abian.

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Jarraipen Batzordearen eta Erakundeen arteko Talde Teknikoaren lana bultzatu eta koordinatu du.

Emakumeen aurkako indarkeria Txostena eguneratu du. Besteen artean, Erakundeen arteko Hitzarmenaren markoan eginiko jarduerak eta Jarraipen Batzordearen zein Erakundeen arteko Talde Teknikoaren lana biltzen ditu.

Aldiro-aldiri, Emakunderen web orriko *Emakumeen aurkako indarkeria* atala eguneratzen eta osatzen joan da, Erakunde arteko Hitzarmenaren markoan egindako jardueren eta Jarraipen Batzordearen zein Erakundeen arteko Talde Teknikoaren lanaren informazio eguneratua emateko.

Emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei erantzuteko jokaera plana. Gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gidaliburua aurkezteko jardunaldia kofinantziatu, banatu eta antolatu du.

Deustuko Unibertsitateak antolatutako Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean parte hartzeko masterrean lagundu du, eskolak eta ikasleentzako diru-laguntzak emanda.

Hitzarmenari lotuta trebatzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak antolatzeko, aholkularitza teknikoa eman die erakunde publikoei eta pribatuei.

Beste erakunde batzuek Hitzarmenaren inguruan trebatzeko eta sentsibilizatzeko antolatu dituzten jardueretan parte hartu du. Hurrengoak nabarmendu behar dira:

- Agintzarik emakumeen kontrako indarkeriari buruz Bilbon antolatutako jardunaldia, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin batera.

- Arabako Foru Aldundiak Gasteizen antolatu zuen *Emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei erantzuteko jokaera plana. Gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gidaliburua* aurkezteko jardunaldia.

Erakundeek Erakundeen arteko Hitzarmenaren markoan egindako jardueren berri eman die Lan eta Gizarte Gaien Ministerioari eta Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Gobernuaren Ordezkaritza Bereziari, bai koordinatzeko asmoz eginiko bileretara joanez, bai emakumeen aurkako indarkeriak gure Autonomia Erkidegoan duen eraginari buruzko diagnosiaren txostena prestatuz. Azken txosten hau, abenduaren 28ko Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Neurrien 1/2004 Lege Organikoko 13. xedapen gehigarrian dago aurreikusita.

Azaroaren 25eko erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina finantzatzen eta koordinatzen parte hartu du.

Erakundeek etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei eman beharreko erantzunei buruzko protokoloa aplikatzen parte hartu du.

Erakundeak ematen dituen diru-laguntzei buruzko dekretuetan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta deuseztatzeko jardueri lehentasuna ematen dieten irizpideak sartu ditu, baita biktimei laguntza ematen dietenak ere.

Berdinsarea (Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarea) sortzeko EUDELekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenarekin aurrera jarraitu du. Sare honen helburua udaletan berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko programak zein jarduerak ezartzea, esperientzia trukatzeko, koordinatzea eta jarduera bateratuak egitea da.

Gizarte-zerbitzuen arloko datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesua koordinatu du, eta bertan parte hartu.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimetarako laguntzen programa arautzen duen dekretuaren zirriborroa prestatu du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bultzatutako Etxeko tratu txarren biktimetarako abegirako baliabideak arautzen dituen dekretuaren zirriborroa sortzen lagundu du, proposamenak eginez.

EUDELek argitaratutako *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibide-gida* prestatzen lagundu du, proposamenak eginez. Bestalde, EUDELek eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatutako formazioan parte hartu du, material hori udaletan ezagutzera emateko, udal protokoloak egitera bultzatzeko asmoz.

Emakumeen aurkako indarkeria ildo estrategiko gisa sartu du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean.

Eusko Legebiltzarrean izandako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko hitzaldian parte hartu du.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokian parte hartu eta lagundu du.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 51.2 artikuluan zehaztutakoari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen aurkako indarkeria

gaietan baliabideen eta programen eraginkortasunaren eta irismenaren ebaluazioa egin du, gizarte-zerbitzuen alorrari dagokionez.

EAEko lurralde historiko bakoitzerako Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak zaindutako eta koordinatutako Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Neurrien Legearen eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren eraginkortasunerako Koordinazio Protokoloa egokitzen eta jarraipena egiten lagundu du.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurkako jarduerak hobetzeko gidak, protokoloak eta materiala sortzen eta zabaltzen lagundu du.

Hitzarmenarekin lotutako beste erakunde batzuek trebatzeko eta sentsibilizatzeko antolatutako jardueretan (ikastaroak, jardunaldiak, konferentziak, etab.) parte hartu du.

Azaroaren 25erako sentsibilizazio-kanpaina bat egin du, eta horren harian zenbait ekintza egin dira.

Emakumeen aurkako indarkeria-gaietan sentsibilizazio-jarduera bat egin du, batez ere Arabako landa-inguruko pertsonen zuzendua.

Etxeko tratu txarrek eta sexu-erasoek eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunei buruzko protokoloa aplikatzen parte hartu du.

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen koordinazio-bileretan parte hartu du, bai eta Erakundeen arteko Talde Teknikoarenetan ere.

Emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei erantzuteko jokaera plana. Gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gidaliburua aurkezteko jardunaldia kofinantziatu, banatu eta antolatu du.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bultzatutako etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-baliabideak arautzeko dekretua sortzen lagundu du.

Gizarte-zerbitzuetako datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesuan parte hartu du.

Arabako landa-inguruetako errealitatea kontuan hartuta, *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibide-gida* sortzen eta zabaltzen lagundu du.

Gasteizko Udalarekin elkarlanean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Mujeres Fundazioari eskatutako CD-ROMa banatu du, zeinak genero-indarkeria prebenitzeko eta deuseztatzeko zein biktimei laguntza osoa emateko esperientziak biltzen dituen.

Gasteizko Udalarekin batera, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko eta erasoak prebenitzeko zentroa sortzea onartu du.

Indarkeriaren biktimak diren emakumeei eta erasotzaileei laguntza psikologikoa emateko zerbitzu publikoen kudeaketa esleitzeko lehiaketa zabaldu du, bai eta emakumeentzako aholkularitza juridikoa ematekoa ere, zerbitzuen koordinazioa barne.

Erasotzaileentzako laguntza psikologikoaren zerbitzua zabaldu du, terapeuten kopurua bikoiztuta. Izan ere, handitu egin da eskaera, bai epaitegiek eginikoa, bai indarkeriaren biktima diren emakumeen haurren aldetik ere, biktima ez ezik erasotzaile ere badirelako.

Genero-indarkeriaren biktimentzako zerbitzu espezializatuak ematen jarraitu du; hala nola, biktimentzako eta erasotzaileentzako laguntza psikologikoa, emakumeentzako aholkularitza juridikoa, tratu txarren biktimei eragiten dieten prozesu juridikoen jarraipena, abegi-etxeak, heziketa-programa eta akonpainamendu-programa abegi-etxeetan edo biktimaren etxebizitzan.

Gasteizko Udalarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena luzatu egin du, laguntza espezializatuko zerbitzuak garatzearen, genero-indarkeria egoeretan jarduteko laguntzaren, prebentzioaren eta koordinazioaren ingurukoa.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Arabako Abokatuen Elkargoaren arteko lankidetza-hitzarmena luzatu egin du, tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko.

Arabako Foru Aldundiko gizarte-zerbitzuen alorretik etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduari jarraiki esku hartzeko protokoloaren arabeko koordinazioa garatu du.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 2006. ekitaldirako laguntza instituzionalerako eginiko deialdien bidez, genero-indarkeriarekin lotutako alderdietan trebatzeko, sentsibilizatzeko eta prebenitzeko jarduerak finantzatu ditu.

Genero-indarkeriaren inguruko gaietako gizarte-zerbitzuetako eta elkarteetako profesionalei trebakuntza eman die.

Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren markoan, 2005ean berrargitaratutako *Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Gida* banatu du.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin hitzarmen bat eginda, *Maskulinitasun berriak eta genero-indarkeria* gaiari buruzko esperientzia pilotua jarri du abian, gizonak arlo honetan monitore gisa trebatzeko.

Arabako Foru Aldundiaren eta San Prudentzio Lan Fundazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena prestatu du, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei lana bilatzen laguntzeko tutoretza abian jartzeko.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Clara Campoamor Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena prestatu du, genero-indarkeria prebenitzeko programa bat antolatzeko. Emakumeen eta adingabeen kasuetan psikologia, zuzenbide, heziketa eta familia arloetan esku hartuko duten profesionalak trebatzeko proiektu baten bidez egingo da hori.

Tratu txarrak jasaten dituzten eta muturreko babes-gabezia egonik etxea utzi behar duten emakumeentzako aldi baterako bi abegi-etxeak mantendu ditu. Bestalde, abegi-etxeetan edo biktimaren etxebizitzan, kasuan kasu, laguntzeko eta aholkularitza emateko programak ere mantendu ditu.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kongresuaren web orria mantendu du.

Lankidetza-hitzarmen bat sinatu du Amurrioko Udalarekin, tratu txarren biktimentzat "zubi moduko etxebizitza" izatera bideratuko den etxe batean obrak egiteko eta hornitzeko.

900 840 111 telefonoa hedatzen lagundu du, Eusko Jaurlaritzak kontratatua eta etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei zuzendua.

Berdintasunaren aldeko Aizan Elkarte Psikosoziala diruz lagundu du, Aiarako inguruan genero-indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen biktimentzako aholkularitza, babesa eta laguntza emateko taldea sortzeko.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak sustatuta, Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Neurrien Legearen eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren eraginkortasunerako Koordinazio Protokoloa egokitzen eta jarraipena egiten lagundu du.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailaren artean lankidetza-hitzarmena bultzatu du, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programa pilotua diseinatzeko, ikuskatzeko eta ebaluatzeko. Arabako Lurralde Historikoan sexu-genero sistemaren gaineko trebatzaile izan nahi dutenei zuzendua dago.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Erakundeen arteko Hitzarmenarekin lotuta, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntzen trebatzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak diseinatu eta eman ditu.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokian, organo honetako zenbait erakundeetako ordezkariak osatzen duten genero-indarkeriaren adierazleei buruzko lan-taldea egiten ari den lanari jarraipena eman dio. Hala, Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak onartutako datuak biltzeko fitxak hedatzen lagundu du, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei emandako laguntza hobetzeko. Gainera, fitxa horietako datuak egun diseinatzen ari diren datu-basean sartuko dituzte, Bizkaiko Lurralde Historikoan fenomeno honek duen errealitatea ezagutzeko, datu fidagarriak eta

homologagarriak izateko, eta beste data edo toki batzuetako datuekin alderatu ahal izateko.

Genero-indarkeria egoeretan emaniko laguntzari buruzko zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: babes sozialaren, polizialaren eta judizialaren esparrua. 2005. urtea. dokumentua idatzi du. Bai eta beste bi agiri osagarri ere: *Gizarte-zerbitzuen arloan tratatu txarren biktima diren emakumeei emandako laguntzaren datuak biltzeko prozesua: udal erakundeetako informazioa jasotzean hautemandako zailtasunen azterketa eta Emakumeen aurkako indarkeriaren zifrak Europar Batasunean.*

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiari buruzko edukia eguneratu eta osatu du, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Emakumea eta Familia Zerbitzuaren web orrian. Webgunean *Bizkaiko Lurralde Historikoko Baliabideen Mapa* argitaratu du; hau da, emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean baliabideak bilatzen laguntzeko tresna, indarkeria-egoeretan parte hartzen duten erakundeei buruzko informazio eguneratua biltzen duena. Hala profesionalak nola herritarrek asko erabiltzen duten erreferente bihurtu da. Web orrian, bestalde, *Agirien kudeatzailea* sartu dute, ikerketak, agiriak eta bestelako informazioa biltzen dituen, eta hiruhileko buletin elektronikoak ere ematen dituzte argitara. Azken hauetan, gaien, tresnen eta lanerako erreminten berri ematen dute, besteak beste. Honi guztiari esker, erakundeekin, elkarteekin eta banakoekin dagoen harremanen sarea sendotzen laguntzen dute.

Emakumeentzako diru-laguntzen deialdia arautzen duen Foru Dekretuan, abegi eta aholkularitza juridiko jarduerekin lotutako balorazio-irizpideei eman die lehentasuna. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeei soilik zuzendutako modalitate bat sortu du.

Familientzako Topagunearen Zerbitzua -lehiaketa publiko bidez esleitzen da- sendotu egin du, 70 m²-ko lokala handituta (egun 250 m² ditu) eta indarrean dagoen kontratua luzatuta. Gainera, zerbitzua hobetzen lagundu duen koordinatzaile bat kontratatu dute profesionalen taldean.

Gizarte-zerbitzuen arloan datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesuan parte hartu du.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak sustatutako Etxeko Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzat Egoitza-baliabideak arautzen dituen Dekretuaren zirriborroa sortzen lagundu du, proposamenak eginez.

Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida, gizarte-zerbitzuetako profesionalei zuzendua kofinantziatu eta banatu du.

Azaroaren 25eko erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina finantzatu du.

Etxeko tratu txarrek eta sexu-erasoek eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunei buruzko protokoloa aplikatzen parte hartu du.

Etxeko tratu txarren biktimentzat abegi eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko programa aplikatzen lagundu du.

Bizkaiko Lurralde Historikoan etxean indarkeria jasaten duten emakumeei buruz eginiko inkesta argitaratu eta zabaldu du.

EUDELEk sustatutako *Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibide-gida* prestatzen lagundu du, proposamenak eginez.

Etxean indarkeria jasaten duten emakumeetan espezializatutako Familia Arloan Esku Hartzeko Programa jarri du abian. Honen bidez, erasotzailearen etxebizitzan gelditzea edo hara itzultzea erabakitzen duten biktimei laguntza psikosoziala ematen zaie, baita familia horiekin bizi diren adingabeei ere. Programak irtenbide egokia aurkitzeko gaitasunak eta baliabideak ematen dizkie.

Emakunderekin batera, EAEko *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana* prestatzen aritu da, joan den irailaren 19an onartu aurretik prestatutako zirriborroetan ekarpenak eginda.

Harremanak Amaitzean Ustezko Tratu Txar eta Sexu-eraso kasuetan izaten diren Arazo Psikologikoetan Laguntzeko Familian Esku hartzeko Programa zabaldu du, tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren eta Lea-Artibain bizi diren emakumeek eta adingabeek

Markina-Xemeinen jaso dezaten laguntza, zailtasunak dituztelako alde batetik bestera joateko. Horretarako, programa astean 5 ordu gehiagoz ematea planifikatu zuten, Mankomunitateak berak prestatutako lokaletan.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren web orrirako Bizkaiko Lurralde Historikoko *Baliabideen Atlas*a sortu du. Bertan, irudien bidez, grafikoki adierazten du informazio guztia. Toki bakoitzean (udalerria, azpieskualdea edota eskualdea) dauden zerbitzuak zerrendatzen eta deskribatzen ditu, erakundeek Bizkaian kolektibo honek dituen beharrei emaniko erantzuna nolakoa den aztertzeko. Bi arlotan banatu du informazioa: *Berdintasunari eta indarkeriari buruzko politika aktiboak* (planak, programak, egiturak zein koordinazio mekanismoak barne) eta *Baliabide zehatzak* (laguntza psikologikoa; lege-aholkularitza; abegi egitea -presazkoa zein epe ertain-luzekoa). Lehen faserako diseinatutako edukiari beste alor batzuetakoa erantsiko zaio; esaterako: poliziala, judiziala, etab. Halaber, dagoena eguneratu egingo da.

Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren gaineko sentsibilizazio-kanpaina instituzionalen optimizazioari buruzko azterketa diseinatu eta egin du, eta Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko osoko bilkuran aurkeztu.

Genero-indarkeriaren aurkako praktiken, ekimenen eta esperientzien esku-liburua izeneko txostena prestatu du, non maila ezberdinetako erakunde eta elkarteek (estatu, autonomia erkidego, foru aldundi, probintzia edota udal mailakoak) abian jarritako jardunbide egokien esperientziak bildu dituen. Agiri horretan bildutako jarduerak gizarte, osasun, lan, ezgaitasun, heziketa, hedabide eta sare alorretakoak dira. Txostena Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko webgunean eman dute argitara.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei eman beharreko zerbitzuekin bateraezina diren zerbitzuei publikoei buruzko akordioa bete du, Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2005eko azaroaren 25ean onartu zuena. Egoitza-programekin edota biktimei laguntzeko beste zerbitzu espezializatu batzuekin lotuta 2006an egin diren kontrataziorako hitzarmen eta prozedura guztietan, bateraezintasun-klausula sartu da. Hala, programa horietan parte hartzen duten abokatuak jarduera profesional pribatuan ustez etxeko indarkeriarekin edota sexu-askatasun ezarekin lotutako delituak egin dituzten pertsonen aholkularitza juridikoa ematea edota horiek ordezkatzeari zein epaiketetan defendatzeari saihesten da.

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2005eko azaroaren 25ean etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko zerbitzu profesionalak ematen dituztenak espezializatuak izateko beharriari buruz sinatutako akordioa bete du. Horren helburua,

eskarmentua eta/edo gaitasun profesionala bermatzea da. Biktimei laguntzeko emandako zerbitzu espezializatuekin lotuta 2006an egin diren kontratazio-prozedura guztietan, enpresa eskaintzaileei emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko ordu jakin batzuetako trebakuntza izatea eskatu zaie –erreferentziako kategoria profesionalaren arabera—. Hainbat kasutan, gainera, tratu txarren biktimekin eskarmentu profesionala izatea ere eskatzen zen.

Emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako bi trebakuntza-jarduera diseinatu ditu, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2007ko Barne Prestakuntza Planean sartzeko: “Genero-indarkeria legerian eta epaitegietan” eta “Lotura osasungarriak – lotura ezgaitasunak”, Gizarte Ekintzako Saileko Haurrak zein Emakumearen eta Familiaren Zerbitzuetako teknikariei zuzenduta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Familia Topaguneak Arautzeko Dekretua prestatzen lagundu du. Zentro publiko eta pribatu guztietan aplikatuko da eta helburuen, printzipioen, zerbitzuen, erabiltzaileen eskubideen eta antolamenduko egituraren arabera erregulazio berbera ezarriko du. Dekretuaren zirriborroa duela gutxi aurkeztu die Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak gainerako erakundeei, azter dezaten eta proposamenak egin ditzaten.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Justizia Sailburuordetzari Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Neurrien Legearen eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren eraginkortasunerako Koordinazio Protokoloa egokitzen eta jarraipena egiten lagundu dio.

EAEn emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan dauden baliabideen eta programen irismena ebaluatzeko elkarrizketak egiten parte hartu du Emakunderekin batera, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 51. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragilean Zuzendaritzari lagundu dio, Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Etxebizitzen Gaineko Ekintza Positiboko Neurrien Aginduaren proiektura ekarpenak eginez.

Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari honako txostena prestatzen lagundu dio: *Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Neurrien 1/2004 Lege Organikoaren*

Jarraipenerako 2005eko Txostena: Genero-indarkeriaren eraginaren azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa Ceuta eta Melilla Hiri eta Komunitate Autonomoetan 2005ean. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduerari buruzko informazioa eman zuen.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2006ko lehen seihilekoan, berehalako arreta emateko abegi-etxe bat jarri du abian, lurralde osorako. Larrialdi egoeran dagoen edozein biktimari zuzenduta dago, eta bertako langileak lehen zaintzetan espezializatuta daude. Gainerako baliabideetara jotzeko zubi-lana egiten duen baliabidea da honakoa, behin-behinekoa, eta genero-indarkeriaren biktimei laguntza osoa emateko baliabidea abian jarritakoan itxiko dute -onartzeke dago abegi-baliabideak arautzen dituen dekretua-.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Departamentuari abegi-baliabideak antolatzeke baldintzak eta irizpideak arautzen dituen dekretua sortzen lagundu dio.

Etxeko indarkeriaren biktima izan arren aurreikusita dauden laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten emakumeentzako laguntza ekonomikoen partida mantendu du Gizarteratze Zerbitzuan (oinarrizko errenta, txertaketako errenta aktiboa, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Integrala).

Abegi-etxeak mantentzeko laguntza ekonomikoak sortu ditu Gizarte Zerbitzuen Legean ezarritako eskumenen banaketaren markoan, Abegi eta Etxebizitza Baliabideak Hobetzeko Programa (2004-2005) betez.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Larrialdietako Zerbitzua inplementatu du.

Gizarte Larrialdietako Zerbitzuarekin koordinazioa hobetzeko, bilerak egin ditu SOS-Deiakekin, Ertzaintzarekin eta Udaltzaingoarekin.

Gizarte Larrialdietako Zerbitzuetara egokitzeke, bilerak egin ditu Gipuzkoako udal guztiekin, eskualdez eskualde.

Genero-indarkeria gaitan laguntza, informazioa eta aholkuak eman dizkie udalei.

Erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko jarduera-protokoloak prestatzen lagundu du.

Kanpo eta barne trebakuntza planak sortu ditu. Lehena, udal gizarte-zerbitzuei zuzendua, lege-aldaketek Jarduera Protokoloan duten eraginaren gainean trebatzeko; bigarrenak berdintasunaren eta genero-perspektibaren gainean zenbait prestakuntza-jarduera biltzen ditu.

Giza Eskubideen Saileko Gizarteratze eta enplegu Zuzendaritzaren sentsibilizazio-kanpainaren markoan, jardunaldiak antolatu ditu azaroaren 25etik martxoaren 8ra bitarteko epean gauzatzeko. Jardunaldietako agiriak eta materiala Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritzaren webgunean aurki daitezke (www.egokilan.net).

Autonomia Erkidegoaren mailan, Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean, Erakundeen arteko Talde Teknikoan eta gainerako batzordeetan parte hartu du.

Lurralde mailan, Biktimak Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), Orientazio Juridikoko Zerbitzua (OJZ), Ertzaintza eta Udaltzaingoa koordinatzeko bilerak sistematizatu ditu.

EUDELEk emakumeen aurkako indarkeriari buruz antolatutako bileretan parte hartu du.

Azaroaren 25eko erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina finantzatzen eta zabaltzen lagundu du.

Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatea ezagutzea eta informazioa sistematizatzea ahalbidetuko duen datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesuan parte hartu du.

Indarkeriagatiko eta sexu-erasoengatiko heriotza kasuetan protokoloa aplikatzen parte hartu du.

Erakundeen arteko Hitzarmena aplikatzeko jarduerak ebaluatu ditu.

Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eta hala nahi duten erasotzaileei laguntza psikologikoa emateko programarekin jarraitu du.

Epai judizial baten aginduz laguntza psikologikoko programara bideratu diren erasotzaileen kasuetarako jarduera-protokoloak ezarri ditu.

Laguntza psikologikorako programa ebaluatu du.

Gizalde Planaren bidez, berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteentzako, indarkeria saihesteko jarduerak zein sentsibilizazio-kanpainak egiten dituzten elkarteentzako eta etxeko tratu txarrak edo sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei laguntzen dieten elkarteentzako diru-laguntzak bultzatu ditu.

Laguntza psikologikorako programaren kanpoko ebaluazioa agindu du.

EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

EUDELen web orriaren bidez, Erakundeen arteko Hitzarmena eta EUDELeke ordezkariak dituzten organoek egindako jarduerak zein protokoloak argitaratu ditu.

Adosturiko jarduerak abian jartzen zuzenean inplikatura dauden udal langileak trebatzeko espazioak proposatzen jarraitu du, baita gaiarekin lotutako lege xedapenen ondoriozkoak ere.

EUDELen eta HAEERen arteko hitzarmenaren markoan, indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen dieten udal langileentzako trebakuntzaren eskaintza osatu du; hala, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko udal protokoloak egiteko ikastaro bat antolatu du. Ikastaro honetan, Erakundeen arteko Hitzarmena sinatu duten erakunde gehienek hartu dute parte.

Udal protokoloak egiteko esperientzietan oinarrituta, *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibide-gida* prestatu, argitaratu eta banatu du.

Udaletako teknikarien topaguneak antolatu ditu, emakumeen aurkako indarkeria saihesteko, hautemateko eta esku hartzeko baliabideen zein zerbitzuen gaineko esperientziak eta hausnarketak partekatzeko.

Arabian eta Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra borrokatzeko eta berdintasunaren aldeko udal baliabideen mapa egiten lagundu du.

Gaiari buruz aurkeztutako lege-ekimenak eta gainerako testu arautzaileak hobetzeko oharrak zein ekarpenak aztertu eta formulatu ditu. Zehazki, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Abegi Baliabideen Dekretua eta Emakunderen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana sortzen lagundu du.

EUDELen web orriaren bidez, gizarte-zerbitzuen arloan Babesteko agindua aplikatzeko protokoloa hedatu du.

EUDELen web orriaren bidez, Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko programa hedatu du.

Udaletan datuak biltzeko sistema bateratua sustatzen lagundu du, horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutzeko eta kasuak erakundeen artean hobeto bideratzeko eta koordinatzeko. Horrekin lotuta, EUDELen web orriaren bidez eta udal protokoloak egiteko ikastaroan informazioa jasotzeko fitxak zabaldu ditu.

EUDELen web orrian etxeko indarkeriagatiko eta sexu-erasoengatiko heriotza kasuetan aplikatu beharreko protokoloaren berri eman du.

Etxeko indarkeriagatiko eta sexu-erasoengatiko heriotza kasuetan protokoloa aplikatzen lagundu du.

Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarea (Berdinsarea) sendotu du, zeinak lanerako egitura eta esparruak dituen.

Erakundeen arteko Hitzarmenean aurreikusitako batzordeetan eta azpibatzaileetan parte hartu du.

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunerako (azaroaren 25) kanpaina bateratua diseinatu du, eta Euskadiko udalerrien eskura jarri.

Hainbat hitzaldi eman ditu Berdinsarea ezagutarazteko: “Emakumeen aurkako indarkeria-gaietan erakundeen esku-hartzea hobetzeko azken ekimena” (Valladolid), “Emakumea eta landa-ingurua” II. Biltzarra (Zaragoza), “Emakumeen aurkako indarkeria: politiketatik esku hartzeko tresna aurreratuetara” jardunaldia (Bilbo), Udal Bizitzan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren aldeko Europako Karta Aurkezteko Mintegia (Paris).

B) JARDUERA PROTOKOLOA BETETZEARI BURUZKO BALIOESPENA

EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZA

“Oro har, bete egin dira Erakundeen arteko Jarraipen Batzordeak 2006rako proposatutako eta onartutako neurriak.

Lehendakariak emakumeen aurkako indarkeria aipatu du gaia zela-eta egoki zen hitzaldietan.

Azaroaren 25eko kanpainan parte hartu du, eta 5.000 €-rekin finantzatu.

Gai honen inguruan sentsibilizatzeko antolatzen diren ikastaro edo jardunaldi gehienak Lehendakariarekin zerikusirik ez duten kolektibo profesionalei zuzentzen zaizkien arren, probetxuzkoak edo interesgarriak izan zitezkeen jardunaldietara joaten saiatu dira. Zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiak Genero Indarkeriaren inguruan antolatutako III. Jardunaldietan izan zen Aholkularitza Juridikoko arduraduna.

Etxeko tratu txarreatiko edo sexu-erasoengatiko heriotza kasuetan aplikatu beharreko jarduera-protokoloari dagokionez, Lehendakariak egokiak diren gaitzespen-ekintza guztiak bultzatzen ditu. Nahiz eta lehendakariak ez duen udaletako ekintza guztietara joaterik, beti izaten da Jaurlaritzaren ordezkariak, bereziki Emakunderena, eta erakunde-adierazpenak egiten dituzte.”

EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

“Helburuak betetzeari dagokionez, balioespena positiboa da.

Erakundeen ikuspuntutik, Herrizaingo Sailak emakumeen aurkako indarkeriaren arazoen inguruan Jaurlaritzak antolatutako sentsibilizazio-ekintzetan parte hartu du. Bestalde, etxeko tratu txarreatiko edo sexu-erasoengatiko heriotza kasuetan erakundeek erantzuteko protokoloaren aplikazioan parte hartu du. Gainera, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak egindako osoko bilkuretan eta bileretan parte hartu du.

Trebakuntzari dagokionez, Herrizaingo Sailak ikastaroetan zein jardunaldietan parte hartu du, eta hainbat hitzaldi eman ditu udalek, Justizia Sailak eta beste erakunde batzuek eskatuta. Euskadiko Polizia Akademiak ikasleei tratatu txarren eta sexu-erasoen inguruko trebakuntza ematen jarraitu du: polizia ikasketetako mailetan eman dituen ikastaroetan alderdi soziologikoak, psikologikoak eta penalak sartu dituzte besteak beste, eta kasu horiek aztertzeko moduari buruzko informazioa ere eman dute. Guztira, 586 ikaslek jaso dute trebakuntza. Gainera, genero-indarkeriaren gaiaren inguruan eguneratzeko eta hobetzeko ikastaro bat ematen jarraitu dute, eta bertan 1.451 ikaslek hartu dute 2006an. Babesari dagokionez, biktimak zein arrisku-egoeran dauden erabakitzeke tresna bat sortu du, eta biktimei laguntzeko prozedurak garatu zein eguneratu ditu, araudian izan diren aldaketetara egokitzeke. Herritarren Segurtasunerako unitateetan etxeko indarkeria eta genero-indarkeria tratatzeko Kalitatea Kudeatzeko Sistemarekin ere ari dira lanean. Gainera, biktimek beren burua babesteko neurrien gaineko informazioa biltzen duten bideo eta liburuxka bana argitaratu ditu, eta Ertzainetxe guztietan erabiltzen dira. 2006an, etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimentzako telefono bidezko zerbitzua eskaintzen jarraitu du. Guztira 145 telefono egon dira martxan (24 Araban, 26 Gipuzkoan eta 95 Bizkaian). Aurreko urtean ere, horretarako ezarrita zegoen protokoloa betez, 17 kasutan (8 Bizkaian eta 9 Gipuzkoan) kontratatu zuen Herrizaingo Sailak biktima etengabe babesteko zerbitzua; guztira 28 emakumeri eman zien zerbitzua (11 Bizkaian eta 17 Gipuzkoan). Familiar gertakariak prebenitzeari begira -batez ere, emakumeen aurkako indarkeria saihesteko-, Ertzaintzako Herritarren Segurtasunerako Dibisioko ertzainek 38.247 ordu behar izan zituzten 2005ean; 2006an, ordea, 65.712 ordu, %72 gehiago.”

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

“Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak proposatutako 15 neurrietatik 14 bete ditu, hau da, hitzartutako jardueren %93. Sortzeke dago beste arazo batzuk ere badituzten tratatu txarren biktimentzako abegi-baliabidea, nahiz eta arautua dagoen etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimentzako abegi-baliabideen Dekretuan. Litekeena da proiektua 2008an gauzatzea.

Beraz, balioespena positiboa da, batik bat jarduera batzuen irismena oso handia dela kontuan izanda, kolektiboaren arazo nagusietako bat konpontzea baitute helburu (ostatua eta etxebizitza, besteak beste). Etxebizitzaren alorrean indarrean dagoen araudian sartu diren neurriei esker, baita bikotetik banandu eta lehen uneetarako emakumeentzako abegi-zerbitzuak arautu izanari ere, gaur egun bete egiten da etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeek etxebizitza izateko duten oinarrizko eskubidea.”

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

“Justizia Sailburuordetzak Erakundeen arteko Hitzarmenean etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko 2006. urterako aurreikusitako ia jarduera guztiak egin ditu.

Beste erakunde batzuekin batera eginiko ekintzetan, argi ikusi da erakunde horiek konpromisoak betetzeko duten interesa eta borondatea, aurreko urteetan bezala. Nabarmentzekoa da genero-indarkeriaren arazoari eraginkortasun handiagoz aurre egiteko indarrak batzen dituzten gizarteko eragileen eta eragile judizialen arteko koordinazioa. 2006an, Koordinaziorako Protokoloak nabarmen aldatu eta hobetu dira, eginiko jarraipen eraginkorrari esker.

Emakumeen aurkako indarkeriaren beste epaitegi bat sortu du Bilbon, 2 zenbakiduna. Zalantzarik gabe, delitu horien biktima diren emakumeei laguntza hobea ematen lagunduko du.

Sailburuordetza honen jarduera nagusien artean, emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako epaitegi berrien sorrerari eman dion bultzada dago. Eskumen honek lehentasuna izango luke gainerakoen artean.

Hortaz, positibotzat jotzen da Jarduera Protokoloa zenbateraino bete den, eta gure Erkidegoan sendotu egin da etxeko eta genero-indarkeria desagerrarazteko konpromisoa.”

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

“Segur aski, 2006an hartutako erabakirik garrantzitsuenetako bat honakoa da: osasun-protokoloa betetzeko jarduera sistematikoak ospitaleetako larrialdietan eta osasun-zentroetan sartu izana, kontratu-programa bidezko zerbitzu-zorroan.

Lehenengo urteko emaitzen arabera, lehen mailako arretako osasun-zentroen %90ek ezagutzen dute osasun-protokoloa, eta gehienek erabili egiten dute.

Bestalde, Osakidetza ospitale guztiek ezagutzen eta erabiltzen dute Protokoloa. Akutuen ospitaleetako larrialdi-zerbitzuak informazio-sistemak egokitzen ari dira -ospitaleko postu klinikoaren bidez- kalitatezko informazio zehatzagoa izateko.”

EMAKUNDE - EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

“Emakunde erakunde laguntzailea da, eta ez die etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei zuzeneko laguntzarik ematen; hori dela-eta, ez ditu biktimei laguntza emateko

orduan zuzenean inplikaturik dauden profesionalek (osasun-langileak, poliziak, epaileak, abokatuak eta gizarte zerbitzuetako langileak) protokoloa zenbatean bete duten balioesteko elementuak.

Dena den, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 51.2 artikuluan zehaztutakoari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen aurkako indarkeria gaitan baliabideen eta programen eraginkortasunaren eta irismenaren ebaluazioa egin du 2006an, gizarte-zerbitzuen alorrari dagokionez. Egun, azterketaren ondorioak biltzen dituen txostena prestatzen ari dira eta, amaitutakoan, argitaratu egingo dute, eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko.”

ARABAKO FORU ALDUNDIA

“BLZekin dagoen koordinazioa hobetu egin behar da, bai zerbitzuak ez bikoizteko, bai hutsean ez gelditzeko, batez ere laguntza espezializatutako zerbitzuen kasuan (laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa).

Zenbaitetan, biktimek ez dute abokaturik izaten salaketa egin aurretik.

Garrantzitsua da tratu txarren biktimek diren emakumeentzako abegi-baliabideak erregulatzeko dekretua onartzea eta funtzionatzen jartzea.

Gizarte Zerbitzuen arloan, datuak bilduko dituen sistema bateratua sortzeko zailtasunak ez datoz sistema informatikotik, baizik eta bildu beharreko datuen artean garrantzitsuak zeintzuk diren erabakitzeak.”

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

“Etxeko indarkeriaren biktimek diren emakumeekin lan egiten dugun Emakumearen eta Familiaren Zerbitzuko profesionalok ondokoak hauteman ditugu Hitzarmena betetzean:

Gizarte zerbitzuak: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara doan emakumeak arreta eta informazioa jasotzen ditu. Baliabideen berri ematen zaio, eta emozionalki laguntzen. Zerbitzu espezializatu honetara bideratutako kasuetan, ez dira beti betetzen Hitzarmenean aurreikusitako txostenak (gizarte zerbitzuetako profesionalek informazioa biltzeko bete beharreko ereduak).

Foru zentroetan bizi diren emakumeen kasuan, ona da oinarritzko gizarte-zerbitzuekin dagoen elkarlana laguntza ekonomikoak izapidetzeko eta jarduerak koordinatzeko. Eta, oro har, azkar erantzuten zaie arazoei.

Abegi-baliabideei dagokionez, zenbait udaletan irregulartasunak izan dira jarduteko moduari dagokionez; esaterako, baldintza bezala ezarri izan da emakumeek salaketa jartzea -Sestaoko eta Santurtziko kasu batzuetan ikusi da hori-, edota tratatu txarrak eman dituen bikotea, bikote ohia, senarra edo senar ohia izatea, eta baztertu egin dituzte familiako beste tratatu txarren kasuak. Bestalde, erroldatzeari dagokionez, emakume batzuk baztertua utzi direla ikusi dugu; alegia, udalerrian bizi arren, bertan erroldatuta ez daudenak. Bestalde, abegi-baliabidera jo ahal izateko, udalerrian gutxienez urtebetez erroldatuta egotea eskatu zaie -Sestaoko Udalaren mende dagoen etxeko tratatu txarren biktima diren emakumeentzako udalaren Abegi Etxebizitzaren Zerbitzuko Erregelamenduan adierazita dagoen moduan-. Bestalde, ofizioz erroldan baja emateko izapideak hasita zeuzkan emakume bati ez zioten abegi-etxean sartzen utzi, nahiz eta izapideak amaitu gabe egon. Haurdun dauden emakumeak artatzean ere zailtasunak egon dira, mendekotasun egoeran daudela uste delako.

Alor honetan, esan beharra dago udalerri batzuetako abegi-baliabideak ez direla beharra daukaten biktimei laguntzeko erabiltzen ari. Larrialdietarako Egoitzen Foru Zerbitzuak Bizkaiko udalerri guztietatik etorritako emakume askori lagundu dio. Zenbaitetan, biktimek Foru Zerbitzutik epe ertaineko edo luzeko egonaldiako zentro batera joan behar izan dutenean, ezezkoa jaso dute, eta kasua Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumearen eta Familiaren Zerbitzuak berak baloratu eta aztertu behar izan du. Kasu batean, ezezkoa Santurtziko Udaleko udal zerbitzuak kasua balioetsi ere egin gabe eman da, une horretan profesionala oporretan zegoelako. Azkenik, ikusi ahal izan dugu kasu batean, Foru Zerbitzuan egon ondoren, udalerriko ostatu batean utzi zutela emakume bat, udal abegi-etxean sartu baino lehen.

Emakumearen eta Familiaren Zerbitzu Espezializatua: Tratatu txarren biktima diren emakumeentzako Presazko Abegi Zerbitzua ematen jarraitzen du, zeinak beren kargura seme-alabak dituzten edo ez dituzten emakumeei ostatu ematen dien. Zerbitzu honek 12 lagunentzako lekua du eta ezgaituentzako egokituta dago. Gainera, langile espezializatuak ditu etengabe, biktimei eta beren seme-alabei lehen mailako arreta bermatzeko. Akonpainamendu-zerbitzua eta arazo honi egokitutako segurtasun-neurriak ere baditu. Beharrezkoa den kasuetarako, gainerako abegi-baliabideetara jotzeko zubi gisa balio du. 2006an 108 pertsonak erabili dute Zerbitzua (103 emakume); beraz, 2005ean baino %15 gehiagok. Horietatik 45 etorkinak ziren, 2005ean baino %43,7 gehiago. Kasu askotan,

emakumeek tratu txarrei lotutako beste arazo batzuk ere bazituzten; hala nola, ezgaitasun larriak, toxikomania aktiboak, bazterketako egoera larriak, etab. Dauden baliabideak ez dira erantzun egokia emateko nahikoak. Emakumeak arazo horiek artatzeko zentro berezietara eramatean, toki gutxi daudela edo beteta daudela ikusi dugu, eta itxaron-zerrenda luzeak daudela emakumeak haietan sartzeko. Horregatik, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak babes-neurri handiak dituen etxeko txatu txarren biktimak sendatzeko eta gizarteratzeko zentro esperimentala sortzea, harrera-baliabideak arautzen dituen Dekreturen zirriborro teknikoan aurreikusten den bezala. Izan ere, egoera horietan laguntza emateko babes eta espezializazio maila handiak behar dira.

Larrialdietarako Egoitzen Foru Zerbitzua kudeatzeaz gain, Foru Aldundiko Emakumearen eta Familiaren Zerbitzuak Gizarte Zerbitzuek epe ertainerako edo luzerako egonaldi zentroetarako eginiko eskaera guztiak balioesten ditu. Emakumea onartu ondoren, bere egoeraren, arazoen eta baliabideen arabera plan indibidualizatua egiten du.

Epe ertainerako edo luzerako egonaldietako, emakumeei eta adingabeei zerbitzu osoa ematen dien abegi-baliabide bat du, kolektibo horietan espezializatua. Horiei guztiei zuzendutako programa bereziak kudeatzen dituzten profesional taldea du. Guztira, 26 lagunentzako lekua du; hau da, 10 emakumerentzako eta 16 seme-alabarentzako, adibidez. 2006an, 16 emakume eta 16 adingabe izan dira zentroan.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat Babestutako Etxebizitzaren inguruan duen Jarduera Planari dagokionez, oso modu positiboan baliosten ditugu egindako ekintzak. Izan ere, emakumeek beren egoera pertsonala eta soziala "normalizatzeko" prozesuan izaten duten arazo larrienetako bati irtenbidea aurkitzen laguntzen du: etxebizitzarena, alegia. Arazo honen ondorioz, luzatu egiten da egoitzetako egonaldia, eta horrek zaildu egiten du errekonberazio-prozesua. 2006an zehar, hiru emakumek eta beren seme-alabek erabili dituzte alokairuko etxebizitzak, zuzenean esleituak; izan ere, foru-egoitza batean egon ostean, ez zuten etxebizitzaren arazoa aurreikusita zegoen epean konpondu. Hala, espedienteak azkarrago izapidetu dituztela hautematen dugu, eta etxebizitzak behar berezi bakoitzerako esleitzean malgutasunez jokatu dela. Nabarmentzekoa da, gainera, kasu batean interesduna hasieran esleitu zitzaion etxea utzi -etxearen egoeragatik- eta beste egokiago batera aldatu zela.

Horrekin lotuta, adierazi beharra dago 2006ko urriaren 4ko Agindua (genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitza bat lortzeko ekintza positiboko neurriei buruzkoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak onartua) aplikatzeko eremua

abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 1. artikuluan zehaztutako eremura murrizteak mugatu egiten duela beste emakume batzuek (erasotzaileen amek zein alabek) zerbitzu horretara jotzeko daukaten aukera, eta emakume hauek ere ekintza positibo horietara jo ahal izan beharko luketela. Aipaturiko Lege Organikoak Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Osoa Emateko Neurriak arautzen ditu.

Babesteko Aginduaren Legea eta dagozkion Koordinatzeko Protokoloak indarrean sartu zirenetik, etengabe egon da harremanetan Koordinazio Zentroarekin / Biktimak Laguntzeko Zerbitzuarekin, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzetan zeuden eta babesteko agindua zuten emakumeei buruzko Laguntza eta Gizarte Babes Neurrien Txostena bidali du. Halaber, emakumea egoitzaatik irtetean edo beste abegi-etxe batera doanean, beste txosten bat bidaltzen du horren berri emateko. Gizarte-zerbitzuen arloan indarrean dagoen Etxeko indarkeriaren biktimak Babesteko Agindua Eraginkorra izateko Koordinazio Protokoloari jarraiki, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2005eko azaroaren 25ean onartutako txostena ere bidaltzen du, datuak biltzen dituen.

Hala ere, informazioa alde bakar batek bidaltzen du. Emakumearen eta Familiaren Zerbitzuak egindako galdera zehatzei erantzuteko bidaltzen du informazioa BLZk. Abegi-etxean epe ertainerako/luzerako zeuden emakumeen kasuan, hiru aldiz bidali da kartzela-zigorra zuten erasotzaileei buruzko informazioa, prozeduren eta balizko baimenen inguruan. Horrekin lotuta, zenbait disfuntzio ikusi ditugu programa informatikoak dituen zailtasun teknikoan ondorio gisa. Horren bidez, Zentro Koordinatzaileak epaitegiak emaniko babesteko aginduen informazioa jasotzen du. Baina agindu hauek ez dira beti transmititzen eta, beraz, Zentro Koordinatzaileak ez du babesteko agindu guztien berri. Batzuetan, gure zentroan sartutako emakumeek aginduaren kopia ematean izan du zentroak horien berri.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren Emakumearen eta Familiaren Zerbitzuak tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei zuzendutako programa espezializatuak jarri ditu abian.

Alde batetik, ustezko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetan eta harremanak amaitzean izaten diren arazo psikologikoetan laguntzeko familian esku hartzeko programa, zeinaren barruan 765 pertsonari lagundu zaien 2006. urtean -horien 447 kasu berriak ziren-. Programa hau zabaltzeko egin da, Lea-Artibaiko Mankomunitatean bizi diren eta tratu txarren zein sexu-erasoen biktima diren emakumeek eta adingabeek Markina-Xemeinen jaso dezaten laguntza, zailtasunak baitituzte alde batetik bestera joateko. Horretarako, programa astean 5 ordu gehiagoz ematea planifikatu zuten, Mankomunitateak

prestatutako lokaletan. Egun, astean 309 orduko prestakuntza eskaintzen da, eta zuzenean eta berehala izaten da trebakuntza jasotzeko aukera. Ez dago itxaron-zerrendarik tratamenduari hasiera emateko, eta ez da baldintzarik bete behar.

Eskaintzen duen beste zerbitzu bat, Emakumeei zein Gizonei zuzendutako Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzua da. Familia Zuzenbide arloan ematen ditu aholkuak, bai eta tratu txarren eta/edo sexu-erasoen kasuetan ere, ezkontideen edo bikoteen hausturak izatean familian indarkeria-kasuak prebenitzeko eta konpontzeko. 2006an 446 kasu artatu dituzte guztira; horietatik 354 kasu berriak ziren, 42 tratu txarren kasuak eta 14 sexu-erasoak.

Bestalde, adierazi beharra dago 2006an 340 neska-mutilek jo dutela Familia Topagune Programara. Artatutako kasuen kopurua etengabe ari da gora egiten; izan ere, 2005etik %23ko gehikuntza izan da, eta 2004tik %78koa. Horregatik, 2006. urtean handitu egin behar izan da programako profesionalen zein hezitzaileen taldea, eta koordinatzailearen postua sortu da. Bestalde, obrak egin dituzte eraikinean, ikustaldietarako dauden bost aretoez gain beste hiru eraikitzeko.

Familia Topagunearen funtzio nagusietako bat, euren kargura seme-alabak dauzkaten eta erasotzailearengandik babesten dituen agindua daukaten tratu txarren biktima diren emakumeen osotasuna babestea da. 2006an, 63 emakumeren 83 seme-alabari ireki zaie espedientea Topagunean. Datu nabarmengarria da hau, kolektibo hau bereziki ahula delako. Kasu horietan -laguntza jaso duten adingabeen %24-, programak finkatuta dituen funtzio orokorrez gain, gurasoak ez elkartzeko neurriak ere hartzen dira -itxaroteko denborak errespetatzeko betebeharra ezartzen zaie-, eta zaindu egiten dira adingabeek amaren erasotzailea den gizona ikustean dituzten antsietate-agerpenak.

2006ko maiatzean, etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei eta beren kargu dauden seme-alabei zuzendutako familia laguntza psikosoziala emateko programa berezi bat jarri da abian, erasotzailea bizi den etxean gelditzea edo hara itzultzea erabakitzen duten emakumeei eta hurrei laguntzeko. Hala, krisi-egoerei aurre egiten zaie eta egoera bakoitzari egokitutako irtenbide egokiak aurkitzeko baliabideak ikasten dituzte. 2006an, programaren edukiarekin lotura izan dezaketen erakundeei programa honen berri eman zaie, kasuak artatzeko garaian koordinatzeko sareak ezartzeko. Anbizio handiko programa da hau eta, berria izan arren, 36 emakume eta beren kargura zeuden 21 adingabe lagundu ditu 2006an.

Gizarte Ekintzako Sailak Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia koordinatzen du; hau da, Bizkaiko genero-indarkeriaren arloan ari diren zenbait erakunderekin eta elkarterekin

lan egiten duen aholkularitza-organo kolegiatua. Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeria-egoerak ikuskatzeko eta aztertzeko informazio-sistema eraikitzea du helburu. Bestalde, tratatu txarren inguruko politiken jarraipena ere egiten du, baliabideak benetako beharretara egokitzeko. Organo honen lana, etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundeen arteko Hitzarmenaren harian egindako jarduerekin koordinatutako eta osatuko da.

Halaber, oso garrantzitsua da informazioa jasotzeko fitxa berria definitzen denean (EAE osorako bera) gizarte-zerbitzu guztietan banatzea. Horregatik, trebatzeko jardueretan parte hartu du, eta Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak zabaltzen lagundu du, agiria bere web orrian eta buletinean argitaratu baitu. Udal kontaktuen sarean ere hedatu du. Biktimei Abegi egiteko eta Aholkularitza Juridikoa emateko Zerbitzua eskaintzeko diru-laguntza eskatu duten toki-erakundeen kasuan baloratu egin da 2006an, emakumeen eta familiaren arloan diru-laguntzak emateko deialdietan.

Bigarren pauso modura, gizarte-zerbitzuen arloan datuak jasotzeko eta ustiatzeko sistema bateratua sortu behar da, horrek arazoaren ikuspegi erreala izaten eta jarduera-politikak bideratzen lagunduko bailuke. Hala, Genero Indarkeriaren Behatokian Bizkaiko gizarte-zerbitzuetan biktimen inguruan dagoen informazio guztia bateratzeko datu-basea sortzearen aukera aztertzen ari dira. Horrekin, bateratu egingo lirateke datuak zein gizarte-adierazleak, eta ikuspegi orokorra jasoko litzateke arlo honen gainean, gaur egun informazioa banatuta baitago hainbat iturri eta erregistrotan.

Alor judiziala: Esparru honi dagokionez, modu positiboan balioesten da 2005eko ekainaren 29an emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegi bereziak abian jarri izana, bai eta 2006ko abenduaren 30ean Bilbon emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegi berri bat sortu izana ere.

Bestalde, ondoko arazoak hauteman ditugu. Biktimak jasaten dituen tratatu txarrak psikologikoak direnean, gutxitan ematen da babesteko agindurik. Askotan, emakumeen bikoteak aurkitzen ez direnean, ez da kautelazko neurririk hartzen eta, kasu horietan, babesteko agindurik ematen ez denez, emakumeak ez ditu jasotzen biktima gisa dagozkion eta 1/2004 Legean adierazten diren agiriak.

Kasu askotan ez da neurri zibilik hartzen, eta neurriak eska ditzaketen biktimei ez zaie informaziorik ematen, batez ere seme-alabak zaintzeko eta bisitak egiteko erregimenaren inguruan. Ondorioz, gerta daiteke erasotzaileak babesteko agindua urratzea, aitzakia gisa adingabeak hartuta, edota aitek beren seme-alabak ez ikustea, nahiz eta horrela euren

agresibotasuna handitu egiten den. Aitak ikusi gabe hilabeteak igaro ondoren, bisitak egiteko aukera ematen zaie, batzuetan profesionalen zaintzarik gabe.

Autoren batean ipini egin zen larrialdietarako egoitzen foru-zerbitzuaren helbidea, nahiz eta erabat konfidentziala izan beharko lukeen.

Oro har, biktimek ordu gehiegi eman behar izaten dituzte epaitegietan eta horrek okertu egiten du beren biktima egoera.

Zentroan egondako emakume baten kasuan, instrukzioko epaitegiak emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegira bideratu zuen kasua, emakumea Bilbon bizi zelako; beraz, salaketa jarri zuenetik zitazioa jaso zuen arte hilabete eta erdi baino gehiago pasatu zen, eta denbora horretan ez zuten neurririk hartu. Bestalde, esan beharra dago zentroan egon ziren bi emakumeren kasuan, lege-aholkulariak biktimak babesteko eskatu behar izan ziola epaitegiari, urruntzeko agindua urratu izanagatik salaketa jarri ondoren eta epaitegian deklaratu ondoren, epaitegitik erasotzailearekin batera eta ate beretik irteteko adierazi baitzien.

Biktimarengana hurbiltzeko debekua urratzeak ez du kartzela-zigorra betetzea ekartzen; beraz, erasotzaileak nahi duenean urra dezakeela pentsatzen du. Horrela, biktimak galdu egiten du sistema judizialarekiko konfiantza, eta utzi egiten dio salaketak aurkezteari.

Praktikan mehatxuak -heriotza-mehatxuak barne- faltak direnez, ez delitu, biktimak ez du letraden aholkularitza izaten. Harrigarria da emakume batek babesteko agindua eskatu arren ez ematea, epaiketari erasotzaileak "merezi zuenean" jo egiten zuela aitortu arren. Gainera, autoak dio egoera ez zela arriskutsua, interesdunak tratatu txarrak etengabe jasotzen zituen arren urtetan bizitu zelako bikotean, eta ez zuelako tratatu txarrak behingoz amaitzeko neurririk hartu.

Abokatuen Elkargoa: Ofiziozko txanda espezializatuak jarduera berezia egiten du biktimei laguntzeari dagokionez. Beren lanaren hedapenak nabarmen hobetu du biktimei ematen zaien laguntza eta, beraz, positiboki baloratzen da ahalegin hau.

Laguntza handikoa da abokatuen kooperazioa; are gehiago baliabide ekonomikorik, sozialik eta, askotan, pertsonalik ez duten emakumeen kasuetan. Kasuari buruzko informazioa eman dute eta Zerbitzuarekin lankidetzan aritu dira jarduerak koordinatzeko orduan.

Bestalde, poliziaren egoitzetan ez da beti aholkularitza presentzialik eman, eta telefono bidezko laguntzak eragotzi egiten du zerbitzua behar bezala ematea. Ildo horretatik, esan behar da kasu batean ezinezkoa izan zela txandako abokatua aurkitzea eta, beraz, biktimak ez zuela inolako aholkularitzarik jaso.

Hori dela-eta, beharrezkotzat jotzen da Ofiziozko Txanda Espezializatuko abokatuen laguntza agerraldiaren fasera zabaltzea. Halaber, beharrezkoa da salaketa jarri aurretik eta babesteko agindua eskatu aurretik laguntza presentziala bermatzea, bai eta salaketa zein babesteko agindua eskatzea formulatzeko orduan ere.

Doako justiziari dagokionez, nolabaiteko zurruntasuna sumatu da emakume atzerritarrek aurkeztu beharreko agirien kasuan; izan ere, batzuetan ez dute nortasun-txartelik edo pasaporterik izaten, eta zailtasunak izaten dituzte aurkeztu beharreko agiriak lortzeko. Bestalde, kasu askotan biktimek ez dituzte prozedurak ulertzen, abokatuak emandako azalpenak teknikoegiak direlako. Erabiltzaileak une horietan oso nahastuta eta krisi emozional handiarekin egoten direnez, zenbaitetan oinarritzko datuak jakin gabe sartzen dira emakumeak egoitzetan; esaterako, abokaturik ba al duten eta bere izena zein den. Biktimak adimen-urritasuna duenean are okerragoa izaten da egoera; izan ere, lege-laguntza ez da bere egoerara egokitzen, prozedura ez da malgutzen, ulertzen ez dituzten galderak egiten zaizkie, azalpen zehatzak emateko eskatzen zaie (gertakariak, datak, orduak); horrek guztiak babesik gabe uzten ditu.

Alor poliziala: Oro har, poliziaren jokaera egokia izan da: badaki larrialdietako egoitzetara joan-etorriak nola egin behar diren, biktima babestuta dagoen kasuetan koordinatuta aritzen dira lanean, eta polizia-etxeen zein indarkeria-unitateen artean harreman ona dago; beraz, disfuntziorik izan denean egoera aztertu eta irtenbide egokia aurkitu dute.

Ingresatutako emakume batzuek ez dute babes-agindu eskaeraren kopiarik jaso eta, puntualki -kasu gutxitan-, salaketaren kopiarik ere ez zitzaien eman.

Udaltzaingoak egin eta epaitegiratu egin diren zenbait salaketetan eta diligentzietan, emakumea zegoen larrialdietako egoitzaren helbidea adierazi da, eta horrek arrisku nabarmena sortzen du. Kasu batean, poliziak berehala konpondu zuen arazoa, Emakumearen eta Familiaren Zerbitzuak horren berri eman orduko.

Batzuetan, zenbait poliziek ez zekiten abegi-egoitzaren helbidea zein zen. Beste kasu batean, bere kargura adingabeak zituen emakume bat ez zuten Larrialdietarako Egoitzen Foru Zerbitzura eramane, tratatu txarreatik salaketa jarri eta bere etxebizitza uzteko nahia

adierazi zuen arren. Hasieran, bere etxetik gertu zegoen udal etxebizitza batera joateko aukera eman zioten, baina emakumeak ez zuen onartu, erasotzaileak non zegoen jakin zezakeenaren beldur. Beraz, bi egun itxaron behar izan zituen foru-egoitzara joateko.

Ertzaintzak lankidetzan estuan jardun du zentroan dauden emakumeei laguntzeko orduan. Ertzainek telefono mugikorrak eman dizkiete eta, egoki jo denean, jarraipenak egin dituzte, edo biktimak seguruago egoteko lagundu egin dituzte. Gainera, elkarrizketak egin dizkiete emakumeei eta informazio pertsonalizatua eman diete. Era berean, segurtasun-neurriak hartu dira emakumek babesteko agindurik ez zeukaten kasuetan ere.

Beste ohar batzuk: Gizarteratzearen Errenta Aktiboarekin lotuta, esan behar da beren egoera administratiboa erregularizatu gabe daukaten emakume atzeritarrek ezin dutela prestazio hau jaso, tratu txarren biktima izan arren. Gainera, laguntza hau kudeatzen duen programa ez da ekaina baino lehen onartzen eta, beraz, eskaerei ezin zaie urteko bigarren hiruhilekora arte erantzun.”

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

“Erakundeen arteko Hitzarmena sinatu zenetik, hobetu egin da genero-indarkeriaren biktimei emandako laguntza eta erakundeen arteko koordinazioa. Dena den, genero-indarkeriari buruzko legeria berria indarrean sartzean eragindako aldaketen ondorioz, eta aipaturiko Hitzarmenaren harian hartutako konpromisoei erantzuteko gizarte-baliabideak abian jartzean (ofiziozko txanda berezia, larrialdietarako foru-zerbitzua, etab.), are beharrezkoagoa bihurtu da erakundeen artean koordinatzea eta prozesuan parte hartzen duten gizarte-eragileen arteko jarduera-protokoloak sinatzea; hala nola, polizia zerbitzuen, larrialdietako zerbitzuen, ofiziozko txanden, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrien eta biktimei laguntzeko zerbitzuaren artean.

Protokoloa betetzeko eragile guztiek batera egin behar dute lan.

Protokoloa zuzena dela eta betetzeko bidean dagoela esan dezaket.

Erabilgarria izango litzateke prozesuan parte hartzen duten profesionalek erakunde bakoitzeko erreferentzia bat izatea, pertsona horri dauzkaten zailtasunen berri emateko.

Maitasunezko harremanetatik kanpo ematen diren sexu-erasoen biktimak hobeto babesteko, Ertzaintzak telelaguntza-zerbitzua ematea proposatzen dugu. Gaur egun,

Herrizaingo Sailak ez ditu egoera horretan dauden emakumeak zerbitzuaren erabiltzaile kontsideratzen.

Izan ere, Gurutze Gorriak doako telelaguntza zerbitzu mugikorra ematen die sexu-erasoen biktimei, gertakaria familia-giroan izan den kontuan hartu gabe.

Erroldatuta ez dauden emakume etorkinen kasuan, zailtasunak izaten dira protokoloa betetzeko, debekatuta dagoelako abegi-etxeetan erroldatzea. Beraz, ezin dituzte erregulatutako laguntza ekonomikoak edo bestelako prestazioak jaso..”

EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

“Modu positiboan baloratzen da EUDELek protokoloan 2006. urterako aurreikusita zeuden jarduerak nola bete dituen.

Udalerri mailan, garrantzitsua izan da emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko prozesuak indartzeko Berdinsarea sortzea eta EUDELen Berdintasun teknikaria kontratatzea. Baliagarriak dira emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan ekiteko irizpideak bateratzeko, eta horrela errazagoa egiten da jarduera-protokoloa betetzea.

Bestalde, oso positibotzat jotzen dira Berdinsareako kide diren udalerriek eta EUDELek gai honen inguruan egindako jarduerak ere.

Hori guztia, Euskadiko udalek beren aldetik egin ditzaketen jarduerari kalterik egin gabe.”